



**Euskadi eta Gipuzkoa Europako mundu mailako erronken aurrean:
2020 horizontea**

• Aurkezpena

Aurreko iruzkinean, azaroan, Europar Batasunaren ikuspegitik, 2020 eskualdeak dokumentuan, Europako Batzordearen Eskualde mailako Politikaren zuzendaritza Nagusiak identifikatutako lau erronken aurrean 2020 horizontean Europako eskualdeek duten urrakortasun maila aztertzeari ekin zitzaion.

Hauek dira lau erronka horiek:

- Globalizazioa
- Aldaketa demografikoak
- Klima aldaketaren eragina
- Urrakortasun energetikoa

Ohar honetan aipatu azterketa osatu nahi da Euskadiren eta Gipuzkoaren ikuspegiarekin, horretarako, ondorengo alderdiak gehituz:

- Euskadi Europako eskualdeen erronken testuinguruan
Euskadi eta Gipuzkoa Europako eskualdeen erronken testuinguruan honako hauen aurrean:
- Globalizazioaren erronka
- Aldaketa demografikoen erronka
- Klima aldaketaren erronka
- Energiaren erronka



• Euskadi, Europako eskualdeen erronken testuinguruan

Identifikatutako lau erronkekiko –globalizazioa, aldaketa demografikoak, klima aldaketa eta energia– urrakortasunetik iritzira kalkulatutako aldaketa anitzekiko urrakortasun indizea edo mundu mailako urrakortasun indizeak 36 balioa hartzen du Euskadin.

Europako eskualdeen multzoari dagokionez, indize horren balioa 0 (urrakortasun txikiena, Inner London Britainiako eskualdeari dagokiona) eta 100 (Bulgariako Severozpaden eskualdeari dagokiona) artekoa da eta Euskadiren urrakortasuna Europako eskualdeen batez bestekoaren azpitik kokatzen du.

Aztertutako 267 eskualdeetatik 102. postuan aurkitzen da sailkapenean eta batasuneko eskualdeek baino urrakortasun maila txikiagoa du, % 62.

Lau erronken artean alderatuta, Euskadiren posizio onena klima aldaketarekiko urrakortasunari dagokio eta eskualde askoren aldean posizio hobea du globalizazioarekiko urrakortasunari dagokionez.

Europako erronken aurrean Euskadik dituen urrakortasun defizit nagusiak energiari eta aldaketa demografikoari dagozkio.

<i>Urrakortasun indizeak</i>	<i>Indizea 0-100</i>	<i>Posizioa</i>
Globalizazioa	36	70
Aldaketa demografikoa	45	206
Klima aldaketa	22	48
Energetika	45	126
Mundu mailako urrakortasun indizea	36	102

Europako eskualdeen aldaketa anitzekiko urrakortasunaren puntuazio erantsiak aztertuz gero, aldaketa anitzen aurrean batez besteko urrakortasun indizean Euskadiren puntuazio bera zazpi eskualdek lortu dutela ikus dezakegu.

Zazpi eskualde horiekin alderatuz, Euskadiren urrakortasun maila lehenengoan artean kokatzen da, hau da, globalizazioaren erronkari dagokionez aurrez ikusteko efektu murriztagoarekin (Utrecht-ek soilik hobetzen du Euskadiren urrakortasuna), eta konparaziozko neurri txikiagoan, klima aldaketari dagokionez.

Bestalde, aldaketa demografikoekiko eta energetikoekiko eskualde urrakorrenen talde horretan dago Euskadi.

<i>Euskadiren mundu mailako urrakortasun indize bera duten eskualdeak</i>	<i>G</i>	<i>AD</i>	<i>KA</i>	<i>E</i>
Prov. Luxembourg (Belgika)	53	28	19	46
Flevoland (Holanda)	46	13	59	29
Utrecht (Holanda)	27	21	72	27
Stuttgart (Alemania)	44	34	24	46
Basse Normandie (Frantzia)	52	49	31	15
Franche-Comté (Frantzia)	64	43	21	18
West Wales and The Valleys (Erresuma Batua)	61	44	17	27



• Euskadi eta Gipuzkoa, erronka demografikoaren aurrean

Mundu mailako erronken artean, aldaketa demografikoekiko urrakortasuna da nabarmenena. Euskadik horri dagokionez kontrako itxaropenak aurkeztu ditu gainerako Europako eskualde multzoarekin alderatuz.

Urrakortasun hori adin nagusikoen proportzioa handiagoa izatean oinarritzen da (pertsonek talde horretako kopuru erlatibo handiena duten eskualdeen taldean kokatzen da), baita dinamismo demografiko urriagoan eta potentzialki aktiboak den biztanleriak duen garrantzian ere.

<i>Adierazle demografikoak</i>	<i>Maila (1etik 6ra)</i>
<i>65 urtetik gorako biztanleria (%), 2020</i>	6
<i>Demografiaren beherakada (urteko batez besteko aldaketaren %) 2004-2020</i>	4
<i>Lan egiteko adinean dagoen biztanleria (%), 2020</i>	4
<i>Urrakortasun demografikoaren indizea</i>	45

Euskadiko urrakortasun demografikoaren indize baliokidea duten Europako eskualdeak Frantzia (5 eskualde) eta Italia (3) biltzen dira.

<i>Euskadiko urrakortasun demografikoaren indize bera duten eskualdeak</i>
<i>Pays de la Loire (Frantzia)</i>
<i>Provence-Alpes-Cote d'Azur (Frantzia)</i>
<i>Champagne-Ardenne (Frantzia)</i>
<i>Languedoc-Rousillon (Frantzia)</i>
<i>Corse (Frantzia)</i>
<i>Emilia-Romagna (Italia)</i>
<i>Calabria (Italia)</i>
<i>Marche (Italia)</i>
<i>Oberfranken (Alemania)</i>
<i>Podkarpackie (Polonia)</i>
<i>Alentejo (Portugal)</i>
<i>West Wales and The Valleys (Erresuma Batua)</i>
<i>East Wales (Erresuma Batua)</i>


Eustaten proiektzio demografikoen arabera (2015), 2.194.900 biztanle aurretik ikusten dituzte Euskadin, eta 700.400, berriz, Gipuzkoan urte horretarako, eta azken hamabost urteetako batez besteko hazkundea % 0,37 eta % 0,28koa izan dela, hurrenez hurren. Hortaz, Gipuzkoako garapen demografikoa Euskadikoa bezain onuragarria ez izatea aurretik ikusten da.

Adin nagusikoen biztanleriaren partaidetza % 21,3 izango da Euskadin, eta % 21,6, berriz, Gipuzkoan. Biztanleria potentzialki aktiboari dagokionez (15etik 64 urte arte), Euskadin (guztizkoaren % 64,1) pixka bat handiagoa izango da Gipuzkoan baino (% 64).


Beraz, nahiz eta erronka horren aurrean Gipuzkoaren urrakortasuna Euskadikoaren oso antzekoa izan, proiektzioen bitartez jasotako adierazleek Gipuzkoaren urrakortasuna nabarmentzen dute Euskadikoaren aldean.



Demography vulnerability index, 2020



Globalisation vulnerability index, 2020





• Euskadi eta Gipuzkoa, globalizazioaren erronkaren aurrean

Euskadik globalizazioaren erronkaren aurrean duen urrakortasuna ertaina dela esan daiteke Europako eskualdeen testuinguruan; izan ere, aurrez ikusitakoaren arabera, Europako eskualdeek % 74 baino gutxiago izango dute.

Okupazio tasa altuaren aurreikuspenetan eta biztanleen heziketa maila altuan oinarritzen da egoera hori. Produktibitatea eta lehen mailako ikasketak dituen biztanleria bezalako bestelako adierazleak, berriz, erdi mailako posizioan egongo lirarteke Europako eskualdeen testuinguruan.

<i>Globalizazioaren adierazleak</i>	<i>Maila (1etik 6ra)</i>
<i>Eskulanaren produktibitatea, 2020</i>	3
<i>Enplegu tasa (15etik 64 urte bitarteko %), 2020</i>	1
<i>Goi mailako ikasketak dituen biztanleria (25etik 64 urte bitarteko %), 2020</i>	1
<i>Lehen mailako ikasketak dituen biztanleria (25etik 64 urte bitarteko %), 2020</i>	4
<i>Globalizazioarekiko urrakortasun indizea</i>	36

Erronka horren aurrean Euskadiren urrakortasun maila antzekoa duten eskualdeen artean nabarmentzen dira Alemania, Frantzia, Austria eta Erresuma Batuko eskualdeak.

<i>Globalizazioarekiko Euskadikoaren urrakortasun indize bera duten eskualdeak</i>
<i>Prov. Best-Vlaanderen (Belgika)</i>
<i>Schwaben (Alemania)</i>
<i>Leipzig (Alemania)</i>
<i>Eesti (Estonia)</i>
<i>Alsace (Frantzia)</i>
<i>Auvergne (Frantzia)</i>
<i>Niederösterreich (Austria)</i>
<i>Oberösterreich (Austria)</i>
<i>Salzburg (Austria)</i>
<i>Shropshire and Staffordshire (Erresuma Batua)</i>
<i>Great Manchester (Erresuma Batua)</i>

Euskadiko enpleguaren produktibitateak UE-27ko batez bestekoa gainditzen du, % 20 inguru, euro arruntetan (2007ko datuak, Kontu Ekonomikoak, Eustat). Gipuzkoako produktibitatea ia berdina dela esan daiteke (% 0,3 handiagoa).

Euskadiko okupazio-tasa, % 67,6 (2008ko datuak, BJA galdeketa, Eustat), komunitateko batez bestekoa baino zertxobait altuagoa da. Gipuzkoari dagokionez, tasa horrek argi eta garbi autonomia erkidegokoa gainditzen du, % 70,2.

Euskadiko biztanleria helduaren (25etik 64 urtera) heziketa maila Europar Batasuneko baino askoz ere altuagoa da. Euskadin hirugarren mailako heziketa duen 25 eta 64 urte bitarteko biztanleen kopuruak (% 41,8) komunitateko batez bestekoa erraz gainditzen du eta Gipuzkoako heziketa maila antzekoa dela esan daiteke.

Beraz, egungo adierazleetatik abiatuta, Gipuzkoak erronka horren aurrean duen urrakortasuna oso antzekoa izan arren, pixka bat txikiagoa dela esan daiteke.



• Euskadi eta Gipuzkoa, klima aldaketaren erronkaren aurrean

Klima aldaketari borroka egitea ezinbestekoa da etorkizuneko belaunaldien ongizaterako. Epe laburrean muturreko fenomeno meteorologikoak eragingo ditu eta epe luzean, berriz, batez besteko tenperaturen igoera, klimaren aldaketa, itsas mailaren igoera eta kostetako higadura arriskua areagotzea.

Eskualde guztiak erasango dituen arren, Hego Europako eta Ekialdeko Europako eskualdeek euri-patroien aldaketak eta tenperaturen igoera jasateko arrisku gehiago izango dute. Iparraldean eta mendebaldean, berriz, kostako higadurak izango du eragin handiena.

Euskadik (eta, beraz, Gipuzkoak), Hego Europako eremu klimatikoan dagoen arren, klima aldaketaren aurrean arrisku mugatua du Europako eskualdeen testuinguruan, erabilitako adierazleak bateratuta kontuan hartuz gero: uholdeek eragiteko arriskua duten biztanleen garapena, lehorte arriskuak eta klimaren mendeko sektore ekonomikoen eragina.


<i>Klima aldaketaren adierazleak</i>	<i>Maila (1etik 5/6ra)</i>
<i>Uholdeek eragindako biztanleria (aldaketaren %) 2001-2100</i>	4
<i>Itsas mailaren azpitik 5 m-ra bizi den kostako biztanleria (%), 2001</i>	2
<i>Lehorte arriskua (lurraren hezetasun urriko egun kopuruaren batez bestekoa)</i>	3
<i>Nekazaritzaren eta arrantzaren urrakortasuna (BEGaren %), 2005</i>	5
<i>Turismoaren urrakortasuna (hoteletako eta jatetxeetako enpleguaren %), 2005-2006</i>	2
<i>Klima aldaketarekiko urrakortasun indizea</i>	22

Europako Batzordearen ekitaldian Euskadik Hego Europako eskualdeek baino itxaropen hobeak agertzen ditu, Kantauriko erlaitzean duen posizioari lotuta. Erronka horretarako kalkulaturako indize sintetikoak Alemaniako eta Suediako eskualdeetara gerturatzeko du nagusiki.


<i>Klima aldaketarekiko Euskadikoaren urrakortasun indize bera duten eskualdeak</i>
<i>Mittelfranken (Alemania)</i>
<i>Berlin (Alemania)</i>
<i>Braunschweig (Alemania)</i>
<i>Hannover (Alemania)</i>
<i>Köln (Alemania)</i>
<i>Chemnitz (Alemania)</i>
<i>Luxembourg-Grand Duché (Luxenburgo)</i>
<i>Vorarlberg (Austria)</i>
<i>Norra Mellansverige (Suedia)</i>
<i>Mellersta Norrland (Suedia)</i>
<i>Övre Norrland (Suedia)</i>
<i>Merseyside (Erresuma Batua)</i>
<i>Highlands and Islands (Erresuma Batua)</i>



Klima aldaketarekiko urrakortasun indizea



Aldaketa energetikoarekiko urrakortasun indizea





• Euskadi eta Gipuzkoa, erronka energetikoaren aurrean

Inportatutako erregai fosilak gero eta gehiago behar ditu Europak, eta energiaren prezioak gero eta zalantzarriagoak izateaz gain, munduko egoera geopolitikoaren mende daude. Europako eskualde guztien xedea da energia iraunkor, egonkor eta lehiakorra lortzea.

Erronka energetikoaren eskualde mailako dimentsioa estatuetako politika energetikoek finkatzen dute eta funtsean egiturazko hiru faktoreren mende dago: hornikuntzaren barneko eta kanpoko segurtasuna, enpresen eta etheen eraginkortasun energetikoa eta haien urrakortasuna prezioen gorakadaren aurrean, eta karbono emisioak iraunkortasunaren adierazle gisa.

Europako gainerako eskualdeekin eta Batasun osoari eragiten dion erronka handiarekin alderatuta, Euskadik (eta Gipuzkoak) maila ertaineko urrakortasun energetikoari aurre egiten diola kalkulatu da, nahiz eta oso aldekoak ez diren adierazleak dituen, bai kanpo mendekotasunari eta karbono edukari dagokionez, bai jarduera produktiboaren eraginkortasun energetikoari dagokionez.

Adierazle erlatiborik onena etxeetako energia kontsumoa da.

<i>Energia adierazleak</i>	<i>Maila (1etik 5/6ra)</i>
<i>Etxeko energia kontsumoa (TOE biztanleko), 2006</i>	<i>2</i>
<i>Jarduera ekonomikoko energia kontsumoa (TOE BPDd mila euroko), 2006</i>	<i>4</i>
<i>Inportazio energetikoekiko mendekotasuna (barne kontsumoaren %), 2006</i>	<i>5</i>
<i>Energiaren barne kontsumoaren karbono edukia (tCO₂/TJ), 2006</i>	<i>5</i>
<i>Urrakortasun energetikoaren indizea</i>	<i>45</i>

Euskadiko ezaugarri energetiko horiekin, Alemaniako eskualde ugariara eta Espainian gertuko beste hainbat eskualdetara hurbiltzen da.

<i>Euskadikoaren urrakortasun energetikoaren indize bera duten eskualdeak</i>
<i>Prov. Namur (Belgika)</i>
<i>Tübingen (Alemania)</i>
<i>Oberbayern (Alemania)</i>
<i>Oberfranken (Alemania)</i>
<i>Hamburg (Alemania)</i>
<i>Lüneburg (Alemania)</i>
<i>Weser-Ems (Alemania)</i>
<i>Dusseldorf (Alemania)</i>
<i>Schleswig-Holstein (Alemania)</i>
<i>Asturiasko Printzerria (Espainia)</i>
<i>Kanariak (Espainia)</i>
<i>Errioxa (Espainia)</i>
<i>Bungerland (Austria)</i>
<i>Vorarlberg (Austria)</i>
<i>Norte (Portugal)</i>



• Más información

COMMISSION OF THE EUROPEAN COMMUNITIES

Brussels, 14/11/2008

SEC(2008) 2868 final

COMMISSION STAFF WORKING DOCUMENT

REGIONS 2020

AN ASSESSMENT OF FUTURE CHALLENGES FOR EU REGIONS

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docoffic/working/regions2020/pdf/regions2020_en.pdf

